

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

ITZULPENA¹

1. ARTIKULUA (1) 2006/114/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA KONTSEILUARENA, 2006ko abenduaren 12koa, iruzurrezko eta konparaziozko publizitateari buruzkoa.

Ondorengo itzulpena Eusko Jaurlaritzak egin du Herri Ardularitzaren Euskal Erakundeko (IVAP) Itzultzaile Zerbitzu Ofizialaren bidez eta Zerbitzu horren ziurtagiriarekin.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du inolako balio juridikorik.

¹ Jatorrizko testua, Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean argitaratua, hauxe da : «*Directiva 2006/114/CE del Parlamento Europeo y del Consejo, de 12 de diciembre de 2006, sobre publicidad engañosa y publicidad comparativa*» (*Diario Oficial de la Unión Europea*, L 376/21 de 27/12/2006)

**2006/113/EE ZUZENTARAUA, EUROPAKO PARLAMENTUARENA ETA
KONTSEILUARENA
2006ko abenduaren 12koa,**

Iruurrezko eta konparaziozko publizitateari buruzkoa

(Bertsio kodifikatua)

(Testu egokia EEeari dagokionez)

EUROPAKO PARLAMENTUAK ETA EUROPAR
BATASUNEKO KONTSEILUAK,

Europako Erkidegoa eratzeko Tratata, eta, batez ere,
Tratatu horren 95. artikulua ikusi dute,

Batzordearen proposamena aztertu dute,

Europako Ekonomia eta Gizarte Komitearen irizpena
aztertu dute¹,

Tratatuaren 251. artikuluan ezarritako prozedurari
jarraiki²,

Honako hauek kontuan hartuta:

- (1) Kontseiluaren 1984ko irailaren 10eko 84/450/EEE Zuzentarauak, iruzurrezko eta konparaziozko publizitateari buruzkoak⁽³⁾, funtsezko aldaketak izan ditu hainbat alditan⁽⁴⁾. Komeni da, arrazionaltasunaren eta argitasunaren oinarriak, zuzentarau hori kodetzea.
- (2) Iruurrezko publizitateari dagokionez, alde handiak daude estatu kideetan indarrean dauden legerien artean. Publizitateak estatu kideen mugak gainditzen ditu, eta, ondorioz, eragin zuzena du barne-merkatuaren sorkuntzan eta funtzionamendu onean.
- (3) Iruurrezko publizitateak eta legez kontrako publizitateak lehia desitxura dezakete barne-merkatuan.
- (4) Publizitateak, kontratu bat formalizatzeraren eraman ala ez, eragina du kontsumitzaileen eta merkatarien egoera ekonomikoan.
- (5) Enpresak huts egitera daramatzan iruzurrezko publizitateari dagokionez, estatu kideen legerien

¹ 2006ko urriaren 26an jaulkitako irizpena (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea).

² Europako Parlamentuaren irizpena, 2006ko urriaren 12koa (Egunkari Ofizialean oraindik argitaratu gabea) eta Kontseiluaren Erabakia, 2006ko azaroaren 30ekoa.

³ EO L 250, 1984.9.19koa, 17. or. Zuzentarau horren azkeneko aldaketak Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/29/EE Zuzentaraia osatzen du (EO L 149, 2005.6.11koa, 22. or.).

⁴ Ikus I. Eranskinaren A zatia.

arteko aldeak oztopatu egiten du mugez haraindiko publizitate-kanpainak egitea, eta, ondorioz, alde horiek eragina dute merkantzien zirkulazio askean eta zerbitzugintzan.

- (6) Barne-merkatua garatzen den heinean, eskari-mota ugari egiten da. Kontsumitzaileek eta merkatariek barne-merkatuari etekin handiena ateratzeko aukera eta beharra dutenez, eta publizitatea baliabide garrantzitsua denez — erkidego osoan ondasun eta zerbitzu guztiei benetako irteerak ematen dizkielako—, konparaziozko publizitatearen forma eta edukia zehazten duten oinarriko xedapenek berdinak izan behar dute eta konparaziozko publizitatearen erabilpen-baldintzak harmonizatu egin behar dira estatu kideetan. Baldintza horiek betetzen badira, produktu konparagarrien abantailak objektiboki frogatzen lagunduko dute. Konparaziozko publizitateak lehia ere piztu dezake ondasun- eta zerbitzu-hornitzaileen artean, eta horrek mesede egingo dio kontsumitzaileari.
- (7) Gutxieneko irizpide objektiboak ezarri behar dira publizitatea iruzurrezkoa ote den erabakitzeko.
- (8) Konparaziozko publizitatea bidezko modua da kontsumitzaileei lor ditzaketen abantailen berri emateko; baldin eta alderdi garrantzitsuak, egokiak, egiaztagarriak eta esanguratsuak parekatzen baditu eta ez bada iruzurrezkoa. Komeni da konparaziozko publizitatea kontzeptu zabaltzat jotzea haren publizitate-forma guztiak barne hartzeko.
- (9) Baimendutako konparaziozko publizitateak egiten duen konparazioari dagokionez, irizpideak ezarri behar dira xedatzeko konparaziozko publizitatearekin lotutako zer jarduerak desitxura dezaketen lehia, kalte egin diezaieketen lehiakideei eta eragin negatiboa izan dezaketen kontsumitzaileengan. Baimendutako konparaziozko publizitateari aplikatzen zaizkion baldintzek ondasunen eta zerbitzuen ezaugarriak objektiboki parekatzeko irizpideak izan behar dituzte.
- (10) Egile-eskubideei buruzko nazioarteko hitzarmenek eta kontratuzko edo kontratuz kanpoko betebeharrak buruzko nazioarteko xedapenek aplikagarriak izan behar dute konparaziozko publizitatean, kanpokoek egindako konparaziozko frogak aipatu edo erreproduzitzen badira.
- (11) Baimendutako konparaziozko publizitateari aplikatzen zaizkion baldintzek metakorrak izan

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

behar dute eta erabat bete behar dira. Tratatuaren arabera, baldintza horiek betetzeko formen eta baliabideen aukeraketa estatu kideen esku utz daiteke, baldin eta zuzentarau honek forma eta baliabide horiek jada xedatu ez baditu.

- (12) Baldintza horiek kontuan hartu behar dute, batez ere, Kontseiluaren 2006ko martxoaren 20ko 510/2006 (EE) Erregelamendua, adierazpen geografikoen eta nekazaritzako eta jateko produktuen jatorrizko deituren babesari buruzkoa⁽¹⁾, eta, batez ere, erregelamendu horren 13. artikulua, baita nekazaritza-sektorean onartutako gainerako erkidego-xedapenak ere.
- (13) Kontseiluaren 1988ko abenduaren 21eko 89/104/EEE Lehenengo Zuzentarauaren 5. artikulua, marka kontuan⁽²⁾ estatu kideen legeria hurbiltzeari buruzkoak, eskubide eskusiboa ematen dio marka erregistratu baten jabeari, eta, batez ere, barne hartzen du besteek produktu edo zerbitzu berdinentzat edo bestelako produktuentzat ere ikur berdinak edo antzekoak merkataritzan erabiltzea debekatzeko eskubidea.
- (14) Hala eta guztiz ere, ezinbestekoa izan daiteke konparaziozko publizitate eraginkorra egiteko, lehiakidearen produktu edo zerbitzuak marka baten edo izen komertzial baten bitartez identifikatzea. Lehiakidea marka horren jabea izango da.
- (15) Beste baten marka, izen komertziala edo zeinu bereizgarriak erabiltzeak ez du eskubide eskusibo hori urratzen baldin eta zuzentarau honek diona errespetatuz egiten bada eta helburua bata bestetik desberdintzea eta desberdintasunak nabarmentzea bada.
- (16) Legeria nazionalaren arabera, interes zilegia duten pertsonak edo organizazioek aukera izan behar dute legez kanpoko edozein iruzurrezko edo konparaziozko publizitatearen kontra auzitegian edo administrazio-erakunde eskudun batean errekursoa jartzeko eta, horrela, kexak azaldu edo dagokion jardun judizialari ekiteko.
- (17) Auzitegiek edo administrazio-erakundeek legez kanpoko iruzurrezko edo konparaziozko publizitatea bertan behera uzteko eskumenak izan behar dituzte. Kasu jakin batzuetan, komenigarria izan daiteke legez kanpoko iruzurrezko edo konparaziozko publizitatea debekatzea, zabal dadin baino lehen. Halere, horrek ez du inola ere esan nahi estatu kideek publizitatearen alde aurretiko kontrol sistematikoa ezarriko duen araudia sortu behar dutenik.
- (18) Erakunde autonomoek legez kanpoko iruzurrezko eta konparaziozko publizitatea kentzeko erabiltzen dituzten borondatezko kontrolei esker, ekintza administratiboak edo judizialak ez dira beharrezkoak, eta, horregatik, kontrol horiek

sustatu egin beharko lirateke.

- (19) Nahiz eta zuzenbide nazionalari dagokion frogazama norena den erabakitzea, komeni da tribunalek edo administrazio-erakundeek ahalmena izatea merkatariei frogak eskatzeko egiten dituzten baieztapenen egiazkotasunaz.
- (20) Konparaziozko publizitatea arautzea beharrezkoa da barne-merkatuaren funtzionamendu onerako. Horregatik, ezinbestekoa da erkidego-mailan jardutea. Zuzentarau bat onartzea neurri egokia da, izan ere, printzipio orokor berdinak ezarri arren, estatu kideei helburu horiek lortzeko forma eta baliabide egokienak erabakitzen uzten die, eta hori, subsidiaritasun-printzipioarekin bat dator.
- (21) Zuzentarau honek ez die eragingo zuzentarauak barne-zuzenbidera aldatzeko epeei buruz estatu kideek dituzten betebeharrak —I. eranskinaren B zatian daude bilduta— eta horien aplikazioari.

HONAKO ZUZENTARAU HAU ONARTU DUTE:

1. artikulua

Zuzentarau honen helburua merkataria iruzurrezko publizitatearen eta beronen ondorio bidegabeen kontra babestea da, eta konparaziozko publizitatea zer baldintzatan egin daitekeen zehaztea.

2. artikulua

Zuzentarau honen ondorioetarako, honako definizioak hartuko dira kontuan:

- a) publizitatea: ondasunen eta zerbitzuen horniketa bultzatzeko —ondasun higiezinak, eskubideak eta betebeharrak barne hartuta—, merkataritza-, industria- edo artisautza-jarduera baten edo jarduera liberal baten eremuan egiten den komunikazio-mota oro;
- b) iruzurrezko publizitatea: edozein baliabide erabiliz —aurkezpena tartean— publizitatearen hartzailera erratzera eramaten duen edo erratzera eraman dezakeen publizitate oro. Iruzurrezko publizitateak, iruzurrezkoa denez, eragina izan dezake jarduera ekonomikoan, eta horregatik, lehiakideari kalte egiten dio edo kalte egin diezaioteko.
- c) konparaziozko publizitatea: esplizituki edo inplizituki lehiakide baten ondasunak edo hark ematen dituen zerbitzuak aipatzen dituen publizitate oro.
- d) merkataria: pertsona fisiko edo juridiko oro, baldin eta bere jardueraren helburua betetzen duen jarduera ekonomikoarekin, funtzioarekin, negozioarekin edo lanbidearekin lotuta badago, baita merkataria izenean edo haren kontura lan egiten duen edonon ere;
- e) kodearen arduraduna: edozein erakunde, merkataria edo merkataritza-talde, jokabide-kode bat egiteko eta aztertzeko ardura duena edo kode hori betetzeko konpromisoa hartu dutenek kodea beteko dutela ziurtatuko duena.

3. artikulua

¹ EO L 93, 2006.3.31koa, 12. or.

² EO L 40, 1989.2.11koa, 1. or. 92/10/EEE Erabakiak (EO L 6, 1992.1.11koa, 35. or.) aldatu zuen Zuzentaraua.

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Publizitate jakin bat iruzurrezkoa ote den zehazteko, kontuan hartu behar dira publizitate horren elementu guztiak eta, batez ere, publizitateak ondorengoei buruz egiten dituen aipamenak:

- a) ondasunen edo zerbitzuen ezaugarriei buruzko aipamenak, adibidez: erabilgarritasuna, ondasun- edo zerbitzu-mota, nola egin den, zer osagai dituen, ekoizpen- edo prestazio-data eta prozedura, ongi egoteko zer ezaugarri izan behar dituen, erabiltzeko modua, kopurua, espezifikazioak, non egin den edo nork egin duen edo zer espero daitekeen ondasuna edo zerbitzua erabiltzerakoan, edo ondasunek edo zerbitzuek zer oinarritzko emaitza eta ezaugarri adierazi dituzten probetan edo kontroletan;
- b) prezioa edo prezioa finkatzeko modua eta ondasunak edo zerbitzuak zer baldintzatan ematen diren;
- c) iragarki jartzailearen izaera, ezaugarriak eta eskubideak, adibidez: identitatea eta ondarea, industria- edo merkataritza-jabetzako edo jabetza intelektualeko eskubideak, edo jaso dituen sariak.

4. artikulua

Konparazioari dagokionez, konparaziozko publizitatea egiteko aukera izango da, baldin eta ondorengo baldintzak betetzen badira:

- a) iruzurrezkoa ez izatea, artikuluko hauek diotena betetzen duelako: zuzentarau honen 2. artikuluko b. paragrafoa, 3. artikulua eta 8. artikuluko 1. paragrafoa, eta Enpresek barne-merkatuan kontsumitzaileekin dituzten merkataritza-jarduera desleialei buruzko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2005/29/EE Zuzentarauaren 6. eta 7. artikulua (merkataritza-jarduera desleialei buruzko Zuzentaraua)⁽¹⁾;
- b) behar berak betetzen dituzten edo helburu bera duten ondasunak edo zerbitzuak parekatzea;
- c) ondasun edo zerbitzu horien ezaugarri bat baino gehiago parekatzea. Ezaugarri horiek oinarritzkoak, bereizleak, egiaztagarriak eta esanguratsuak izan behar dute, eta prezioa ezaugarrien barnean sartu ahalko da;
- d) lehiakide baten markak, izen komertziala, bestelako bereizgarriak, ondasunak, zerbitzuak, jarduerak edo egoera ez belzte eta ez iraintzea;
- e) jatorrizko deitura duten produktuen kasuan, konparazioa deitura bera duten produktuekin egitea;
- f) lehiakide baten edo lehian dauden produktuen jatorrizko deituren marka, izen komertzial edo bestelako bereizgarri baten famaz abantaila bidegabeki ez ateratzea.
- g) ondasun edo zerbitzu bat ez aurkeztea babestutako marka edo izen komertziala duen ondasun edo zerbitzu baten imitazio edo erreplika gisa;

¹ EO L 149, 2005.6.11koa, 22. or.

- h) nahasterik ez sortzea merkatarien artean, iragarki jartzailearen eta lehiakidearen artean, edo marken, izen komertzialen, bestelako bereizgarrien artean, edo iragarki jartzailearen ondasunen edo zerbitzuen eta beste lehiakide baten ondasunen edo zerbitzuen artean.

5. artikulua

1. Estatu kideak arduratuko dira baliabide egokiak eta eraginkorrak izateaz iruzurrezko publizitatearen aurka borrokatzeko eta konparaziozko publizitateari buruzko xedapenak betetzeko, hori merkatarien eta lehiakideen onerako baita.

Baliabide horiek lege-xedapenak izan behar dituzte iruzurrezko publizitatearen aurka borrokatzeko edo konparaziozko publizitatea arautzeko, betiere, legeria nazionalaren arabera interes legitimoa duten pertsonen edo erakundeek ondorengo ekintzak egin ahal izateko:

- a) publizitate hori auzitara eraman, edo
- b) publizitate hori administrazio-autoritate eskudun baten eskutan jarri, autoritate horrek erreklamazioei buruzko epaia eman dezan edo beharrezko ekintza judizialei bide eman diezaien.

2. Estatu kide bakoitzari dagokio erabakitzea 1. paragrafoko bigarren lerroakadako zer prozedura erabiliko duen eta komeni ote den tribunalak edo administrazio-organismoak eskumena izatea errekurtsua eskatzeko erreklamazioak konpontzeko ezarritako beste bideak, 6. artikuluan aipatutakoak barne, erabili aurretik.

Estatu kide bakoitzari dagokio erabakitzea:

- a) lege-prozedura hauek bereizirik edo batera erabili ahalko diren ekonomia-sektore bereko hainbat merkatariren kontra,
- eta

- b) kode baten arduradunaren kontra erabili ahalko diren, kodigo horrek lege-betekizunen haustea badakar.

3. Artikulu honetako 1. eta 2. paragrafoan jasotakoaren arabera, estatu kideek eskumen batzuk emango dizkiete auzitegiei edo administrazio-organoei, auzitegi edo organo horiek, interes guztiak eta, batez ere, interes orokorra aztertu ondoren neurri horiek beharrezkoak direla iritiz gero, honako hauek egin ahal izan dituzten:

- a) iruzurrezko edo legez kanpoko konparaziozko publizitate jakin bat bertan behera utzi ahalko dute, edo aipatutako publizitate hori bertan behera uzteko beharrezkoak diren ekintza judizialak hasi ahalko dituzte,
- edo

- b) publizitate jakin bat oraindik argitaratu ez denean, baina berehala argitaratzeko asmoa dagoenean ere, publizitate hori debekatu ahalko dute edo iruzurrezko edo legez kanpoko konparaziozko publizitate hori bertan behera uzteko beharrezkoak

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

diren ekintza judizialak hasi ahalko dituzte.

Galera edo kalte erreal baten edo iragarki-jartzailearen arduragabekeriaren frogarik ez dagoenean ere aplikatuko da lehenengo lerrokada .

Estatu kideen ardura izan behar da lehenengo lerrokadako neurriak prozedura azkar baten bitartez hartu ahal izatea. Era berean, estatu kideek erabakiko dute hartutako neurri horiek behin-behinekoak edo behin betikoak izango diren.

4. Estatu kideek eskumen batzuk eman ahalko dizkiete tribunalei edo administrazio-autoritateei, iruzurrezko edo legez kanpoko konparaziozko publizitate jakin baten eragin iraunkorra deuseztatzeko, publizitate hori bertan behera uzteko behin betiko erabakia hartu denean. Eskumen horiekin:

a) erabaki hori, osoki edo partzialki, hobekien irizten dioten moduan, publiko egitea exijitu dezakete;

b) gainera, zuzenketa-txosten bat argitaratzea exijitu dezakete.

5. Artikulu honetako 1. paragrafoko 2. lerrokadako b) idatz-zatian agertzen diren administrazio-organoei ondorengo baldintzak bete behar dituzte:

a) horien osakerak ez du zalantzan jarri behar inpartzialtasuna;

b) erreklamazioen epaia ematen dutenean, epai hori modu eraginkorrean beteko dela ziurtatzeko botereak izan behar dituzte;

c) hasiera batean, hartutako erabakiak justifikatu behar dituzte.

6. Artikulu honetako 3. eta 4. paragrafoko eskumenak administrazio-organoei bategi soilik erabiltzen dituztenean, hartutako erabakiak edozein kasutan justifikatu beharko dira. Kasu horretan, prozedura batzuk ezarri beharko dira errekurtsio judiziala jarri ahal izateko administrazio-organoei eskumenak gaizki edo arrazoirik gabe erabiltzen baditu edo eskumen horiek gaizki edo arrazoirik gabe erabiltzen badira.

6. artikulua

Zuzentarau honek ez du baztertuko estatu kideek erakunde autonomoen iruzurrezko edo konparaziozko publizitatea beren kabuz kontrolatzea, ezta pertsonak edo erakundeak 5. artikuluko 1. paragrafoko bigarren lerrokadak aipatzen dituen organismoetara jotzea ere, baldin eta organismo horiek horretarako prozedurak badituzte artikulu horrek aipatzen dituen prozedura judizial eta administratiboek gain.

7. artikulua

Zuzentarau honen 5. artikulua aipatzen duen prozedura zibil edo administratiboren bat izanez gero, estatu kideek tribunalei eta administrazio-organoei eskumen batzuk emango dizkiete. Eskumen horiekin:

a) iragarki-jartzaileari exijitu ahalko zaio publizitatean jasotzen dituen baieztapenak egiazkoak direla frogatzeko, baldin eta iragarki jartzailearen eta prozeduraren edozein alderdiren interes zilegia

kontuan harturik eta kasuaren inguruabarrak ikusita, eskakizun horrek aproposa badirudi. Konparaziozko publizitatearen kasuan, iragarki jartzaileari frogak horiek denbora-epe laburrean aurkezteko exijitu ahalko zaio;

eta

b) datu materialak okertzat jo ahalko dira a) idatz-zatiak eskatzen dituen frogak aurkezten ez badira edo tribunalari edo administrazio-organoei frogak horiek nahikoak ez direla iruditzen bazaie.

8. artikulua

1. Zuzentarau honek ez die estatu kideei oztoporik jarriko iruzurrezko publizitatearen, merkatarien eta lehiakideen kontuetan babes gehiago bermatzeko xedapenak izaten edo hartzen badituzte.

Lehenengo lerrokada ezin zaio konparaziozko publizitateari aplikatu, konparazioari dagokionez.

2. Zuzentarau honen xedapenak aplikatzeak ez du esan nahi ez direnik bete behar produktuen eta zerbitzuen publizitateari buruzko edo komunikabide jakin batean azaltzen den publizitate-murrizketei edo debekuei buruzko erkidego-xedapenei.

3. Konparaziozko publizitateari buruzko zuzentarau honen xedapenek ez dituzte estatu kideak aipatutako ondasunen edo zerbitzuen konparaziozko publizitatea baimentzera behartuko, baldin eta estatuok tratatuan ezarritako jarraiki, ondasun edo zerbitzu jakin batzuei buruz, zuzenean edo organismo edo erakunde eskudun baten bitartez, estatu kideen legeriaren arabera, merkataritza-, industria-, artisautza edo lanbide-jarduera erregulatzeko debekuak badituzte. Debeku horiek komunikabide jakin batzuetara soilik mugatzen badira, zuzentarau hau debeku horretatik kanpo gelditzen diren komunikabideei aplikatuko zaie.

4. Zuzentarau honetan xedatutako ezerk ez die estatu kideei eragotziko, tratatuak ezarritako jarraiki, zerbitzu profesionalen publizitatean konparazioen erabileraren murrizpenak edo debekuak izatea edo hartzea lan-jarduera jakin bat erregulatzeko. Estatu kideen legeriari jarriki, debeku edo erabileraren murrizpen horiek organismo edo erakunde eskudun batek ezarriko ditu.

9. artikulua

Estatu kideek Batzordeari jakinarazi behar diote, zuzentarau honek araututako eremuan, barne-zuzenbideko zein xedapen onartu dituzten.

10. artikulua

84/450/EEE Zuzentaraua indargabetzen da. Horrek, ordea, ez du eraginik estatu kideek zuzentarauak zuzenbide nazionalera aldatzeko dituzten epeei buruzko betebeharrak. Betebeharrak I. eranskinaren B zatian bilduta daude.

Indargabeturiko zuzentarauari buruzko erreferentziak zuzentarau honi aplikatuko zaizkio, II. eranskinaren bilduta dagoen korrespondentzia-taularen arabera.

11. artikulua

Europar Batasuneko erakundeek ez dute itzulpen honen erantzukizunik eta ez du balio juridikorik

Zuzentarau hau 2007ko abenduaren 12an sartuko da indarrean.

12. artikulua

Zuzentarau honen hartzaileak estatu kideak dira.

Estrasburgon egin, 2006ko abenduaren 12an.

Europako Parlamentuaren izenean
Presidentea
J. BORRELL FONTELLES

Kontseiluaren izenean
Presidentea
M. PEKKARINEN